

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Atal honetan gure zerbitzua aurrera eramateko behar ditugun kontaktuak zehaztuko ditugu. Proiektu hau gure kabuz gauzatzeko zaila dirudigunez, laguntza eskatzea erabaki dugu. Horretarako, hainbat enpresekin jarriko gara harremanetan; haiek izango dira, beste baliabide batzuen artean, tokia eta diru-laguntzak eskaintzeaz arduratuko direnak.

Hasteko, herrietako udaletxeekin harremanetan jarri beharko ginateke, ea haiek diru-laguntzak emango lizkiguten edo ez jakiteko. Gainera behar ditugun baliabideak eskuratzen lagunduko ligukete. Horrekin batera, aliantzak egin ditzakegu haiekin.

Jarraitzeko, bulego bat ere edukitzea oso garrantzitsua iruditzen zaigu. Han deiak, maketak, eta saioak prestatuko ditugu. Horretarako gure herriko, Urretxu-Zumarragako, UGGASA enpresarekin jarriko gara harremanetan. UGGASA bulegoak oso merke alokatu ditzakezun enpresa bat da. Gure ustez aukera onena da, izan ere, oso merkea ateratzen delako. Lehen bi urteetan, Uggasak utziko digu lokala. Hilabetean, 90€ ordaindu beharko ditugu (argindarra, ura, alkilerria eta wifia barne).



Bulegoa alokatu ondoren, ikastolekin kontaktatuan jarriko gara, ikastoletako zuzendariekin zehazki. Zuzendariak izango dira oinarri gure proiektua aurrera eramanez izateko. Zuzendariekin elkartu eta erabakiko dugu nola eta noiz eman klaseak, azken finean, beraien laguntza eta babesak badugu, gure enpresaren hasierako gauzarik garrantzitsuena edukiko dugu.



Materialaren harira, etxetresna elektriko eta maketak egiteko paper-denda batean erosiko ditugu. Gure herriko (Zumarragako) "URKI" paper-dendan erosiko dugu materiala. Han kartoia, goma eva, temperak, pintzelak.. erosiko ditugu.